

EUSKAL HERRIKO HERRI MUGIMENDUAREN II. TOPAGUNEA... MARTXANI!

Kaixo lagunak!

Igarotako abenduaren 16ean, prentsaurreko batetan iragarri bezala, iazko Lehenengo Topagunetik abian jarritako "HERRIA MUGI! EKIMENA"koek, datorren OTSAILAREN 19 eta 20ean, EUSKAL HERRIKO HERRI MUGIMENDUAREN II. TOPAGUNEA antolatuko dugu.

Bertan, *bi gai nagusi* jorratuko dira:

- Bata, *Euskal Herriaren egoera orokorraren inguruko hausnarketa* (azken bi urteotako balantzea eta egungo egoera).
- Bestea, *desobedientzia*.

Lehenengoarekin, *HERRI MUGIMENDUAREN IKUSPUNTUTIK, EUSKAL HERRIAN AZKEN BI URTEOTAN GERTATUTAKO GUZTIAREN INGURUAN PARADA BAT EGIN NAHI DUGU, HAUSNARKETA OROKOR BAT BURUTU ASMOZ. HORREZAZ GAIN, EGUNGO EGOERA ETA AURRERA BEGIRAKOA ERE, AZTERTU NAHI DITUGU.*

Gauza asko gertatu dira Euskal Herrian azken hilabeteotan eta oraindik ere, gauza asko gertatzen ari dira. Eta gertatuko direnak. Gure Herria bizirik baitago.

Batetik, gertaera hauen aurrean, oro har, euskal gizartearen eta Herri Mugimenduaren aniztasunean gauden taldeen partaidetza eskaxegia izan dela uste dugulako eta bestetik, euskal gizarte eredu berri bat eraikitzen, aurrera begira dauzkagun erronkak kontutan hartuz, Herri Mugimenduaren zeresanak eta zereginak ezinbesteko kontsideratzen ditugulako, hausnarketa orokor honi balio handia ematen diogu.

Herri Mugimendua osatzen dugun espresio guztien partaidetza bilatzen dugu. Horretarako, Euskal Herriaren inguruko azterketa hau, lau mailatan egin nahi da. Euskal Herriaren egoerarekiko, zuen taldearen eta sektorearen ikuspuntuak eta proposamenak jasotzeari, Herri Mugimenduaren eta euskal gizartearen ikuspuntuak eta proposamenak ere jasotzen dituzten ekarpenak gehitu nahi dizkiogu, hau da, zuen talde eta sektorearen "gainetik", zuen buruak eremu horietan kokatuz, beste bi ikuspuntu horiek ere jorratzea eta helaraztea eskatzen dizuegu.

Bigarrenarekin, aldiz, *DESOBEDIENTZIA*rekin alegia, *ERAGINKORTASUNEAN AURRERAPAUZOAK EMATEA BILATZEN DUGU*. Desobedientziaren ezaugarri nagusiak, esperientzi praktiko ezberdinen elkartrukatzea, egunerokotasunean dauzkagun arazo praktikoei konponbideak aurkitzea eta aurrera begirakoa aztertzea, besteak beste, izango dira saio honen hizpideak.

Zuen idatzizko ekarpenak erraztearren, eskema batzuk helarazten dizkizuegu. Euskarri hauek, lagungarri izan nahi dute. Bertan topatuko dituzue, ekarpenaren nondik norako guztiak. Hortik aurrera... zuena da hitza!

Osasun arazoak direla, hilabete honetan, *FITE!* inoiz baino beranduago jasoko duzuenaz, idatzizko *EKARPENAK URTARRILA AMAITU AURRETIK* helaraztea eskatzen dizuegu, *JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOAK DAUZKAN HELBIDE EZBERDINAK ERABIL DITZAZKEZUELARIK (FITE! aldizkarian topatu ahal izango dituzue)*. Edozer gauzetarako ere, jarri gurekin harremanetan...

ANIMO ETA PARTE HARTU, ANIMO ETA PARTE IZANI

Herria Mugi Ekimena!

1999ko maiatzaren 15ean buruturiko Euskal Herriko Lehenengo Herri Mugimenduaren Topaguneari jarraipena emanez, datorren otsailaren 19 eta 20an Bigarren Topagunea antolatuko da. Bertan, Herri Mugimenduaren ikuspuntutik, hausnarketa gune bat gauzatu nahi da. Topagune honek, bi helburu nagusi ditu: bata, Herri Mugimenduaren ikuspuntutik, azken hilabeteotan, Euskal Herrian bizitzen ari garen gertaeren hausnarketa burutzea, eta bestea, desobedientziaren inguruan aritzea. Bi ildoekin, ondorio batzuetara ailegatu asmo dugu, eta ostean, guztion artean egin daitekeena aztertu. Asteburuan arlo teoriko zein praktikoa landuko da. Egungo egoera (eta aurrera begira elkarlanean landu daitezkeen bideak) aztertzeko eta desobedientzian aurrerapausoak emateko, gizarte eredu berri baten alde gaudenon partaidetza ezinbestekoa delako, **Topagune aurretik, zuen ekarpena jaso nahi dugu, xede horrekin gatozkizue.**

Ekarpenak honako atal hauek ditu:

- Azken bi urte hauen eta egungo errealitatearen irakurketa. (taldeetik edota esperientzi propioetik, sektoretik, Herri Mugimendutik, Euskal Herritik)
- Egungo egoerak izan dezakeen bilakaeraren aurrean, proposamenak. (taldeetik/esperientzi propioetik, sektoretik, HMTik, Euskal Herritik)
- Desobedientzia.

Ekarpenak lantzerakoan **HAINBAT OHAR** hartu behar dira kontutan:

1. Ekarpena Herri Mugimenduaren ikuspuntutik burutu behar da.
2. Ekarpen laburra (sinopsia) ondorengo orrietan idatziko da. Ekarpen osoak edo garatuak, eskema bera jarraituko du, aipatu hiru atal bakoitzak gehienez lau orrialde izango ditu.
3. Ekarpenak egiteko, elementu baliagarriak orrien behealdean agertzen dira. Elementu hauek lagungarriak dira, nolabait hitz egin behar dugunaren inguruan kokatu ahal izateko, eta ez dira guztiak ezinbestean garatu behar.
4. Ekarpena landu ostean, igorri zureganatu den Herria Mugi Ekimenaren Talde Eragileko kideari, edo Joxemi Zumalabe Fundaziora: Ametzagaña 19, behea. 20 012 Donostia. (943 27 55 61).
5. Ekarpenik egin dezakeen talde edo norbanakoari zabaldu esku artean duzun eskema, eta lanak ez biderkatzearren, aurretik Talde Eragileari honen berri eman, goian aipatu telefonora deituaz.

Euskal Herriko Herri Mugimenduaren Bigarren Topagunea egoki antolatzeko, denon partaidetza ezinbestekoa da, Herri Mugimenduan dauzkagun kezka eta arazoengatik inguruan hausnarketa burutzeko eta denon artean, aurrera bidea lantzeko. Mila esker, zuen (zure) laguntzagatik!

Donostia, 1999ko abenduaren 23an.

ORRI HAU ZURE EKARPENAREN LABURPENAREKIN BETE. ESKEMA BERA ERABILIZ, IDATZI, GEHIENEZ LAU ORRIALDETAN, ZURE EKARPENA BERE OSOTASUNEAN.

EUSKAL HERRIKO AZKEN BI URTE HAUEN ETA EGUNGO ERREALITATEAREN IRAKURKETA¹

ZURE TALDEAREN EDO ZURE ESPERIENTZIA PROPIOAREN BALANTZEA	ZURE SEKTOREAREN BALANTZEA
HERRI MUGIMENDUARI BURUZKO BALANTZEA	EUSKAL GIZARTEAREN INGURUKO BALANTZEA

Euskal Herriaren egoeran eta prozesu politikoan eragiten duten faktoreak: -Globalizazioa eta egungo euskal gizartea: egoera sozioekonomikoa; garapen eredia eta lurralde antolakuntza; "pentsamendu bakarraren" ezarketa; kulturaren homogenizazioa; hizkuntza minoritarioen desagertzea; hezkuntza-irakaskuntza ereduak; Mundu Merkataritza Elkartea, Banku Mundiala...; balore aurrerakoiak eta balore berriak; -Egungo prozesu politikoak: Eraikuntza nazionala eta soziala, Lizarra-Garazi, Udalbiltza, Su etena; -Alderdi politikoak, sindikatuen, komunikabideen eta Herri Mugimenduko taldeen jarduerak, e.a. Euskal Herriko Herri Mugimenduaren egoera: (atal guztiak barne mailan, Herri Mugimenduaren sareetan, gizarteko eragileei dagokienean eta gizarteari begira landu); Ikuspuntu ezberdinak kontutan izan: maila lokala, hemendik gorakoa,...; -Egoera organizatiboa; -Jarduera komunikatiboa; -Hezkuntza: kolektiboa zein norbanakoa; -Herri Mugimenduko militanteen soslaiak eta egungo militantiaren egoera: maila: kualitatiboa zein kuantitatiboa; -Helburu eta jardueren inguruko desorekak: metodologiaren erabilpenaren egokitasuna, inertiak, lan molde berriak; -Erakundeekiko harremanak; -Desobedientziaren errealitatea Herri Mugimenduaren taldeen jardueran; ...

¹ Eskuartean duzun ekarpen-eskema bete aurretik, aurreko orrian bidaltzen diren oharrik irakurtzea komeni da.

ORRI HAU ZURE EKARPENAREN LABURPENAREKIN BETE. ESKEMA BERA ERABILIZ, IDATZI, GEHIENEZ LAU ORRIALDETAN, ZURE EKARPENA BERE OSOTASUNEAN.

EUSKAL HERRIKO EGUNGO EGOERAK IZAN DEZAKEEN BILAKAERAREN AURREAN, PROPOSAMENAK²

ZURE TALDEARI BEGIRA	ZURE SEKTOREARI BEGIRA
ORO HAR, HERRI MUGIMENDUARI BEGIRA	EUSKAL GIZARTEARI BEGIRA

Euskal Herriaren egoeran eta prozesu politikoan eragiten duten faktoreak: -Globalizazioa eta egungo euskal gizartea: *egoera sozioekonomikoa; garapen eredia eta lurralde antolakuntza; "pentsamendu bakarraren" ezarketa; kulturaren homogenizazioa; hizkuntza minoritarioen desagertzea; hezkuntza-irakaskuntza ereduak; Mundu Merkataritza Elkarte, Banku Mundiala...; balore aurrerakoiak eta balore berriak*; -Eguno prozesu politikoak: *Eraikuntza nazionala eta soziala, Lizarra-Garazi, Udalbiltza, Su etena*; -Alderdi politikoan, sindikatuen, komunikabideen eta Herri Mugimenduko taldeen jarduerak, e.a. Euskal Herriko Herri Mugimenduaren egoera: *(atal guztiak barne mailan, Herri Mugimenduaren sareetan, gizarteko eragileei dagokienean eta gizarteari begira landu); Ikuspuntu ezberdinak kontutan izan: maila lokala, hemendik gorakoa,...*; -Egoera organizatiboa; -Jarduera komunikatiboa; -Hezkuntza: *kolektiboa zein norbanakoa*; -Herri Mugimenduko militanteen soslaiak eta egungo militantiaren egoera: *maila: kualitatiboa zein kuantitatiboa*; -Helburu eta jardueren inguruko desorekak: *metodologiaren erabilpenaren egokitasuna, inertiak, lan molde berriak*; -Erakundeekiko harremanak; -Desobedientziaren errealitatea Herri Mugimenduaren taldeen jardueran; ...

² Eskuarteran duzun ekarpen-eskema bete aurretik, aurreko orrian bidaltzen diren oharrak irakurtzea komeni da.

ORRI HAU ZURE EKARPENAREN LABURPENAREKIN BETE. ESKEMA BERA ERABILIZ, IDATZI, GEHIENEZ LAU ORRIALDETAN, ZURE EKARPENA BERE OSOTASUNEAN.

DESOBEDIENTZIA³

DESOBEDIENTZIAREN EZAUGARRIAK

DESOBEDIENTZIA JORRATZERAKOAN TOPATZEN DITUGUN ARAZOAK

DESOBEDIENTZIAREN INGURUAN EUSKAL HERRIAN EMANDAKO ESPERIENTZIEN AIPAMENA ETA HAUEN BALORAZIOA

AURRERA BEGIRA BIDE (TRESNA) HONI EKITEKO INDARREN ETA AUKEREN BALORAZIOA

-Metodologia/taktika ezberdinak: desobedientzia epaitegiatara bideratua, erakundeetatik (Udaletatik) bultzatua, ekintza zuzena, e.a. -Arazoak: zigor ekonomikoak, espetxe zigorra, abokatuak, autoinkulpazioa, komunikabideen aurrean leia, partehartzea, Herri Mugimenduen aldarrikapenak alderdi politikoak, erakundeek, edota Estatuak bereganatzen dituenen. -Herri Mugimendua desobedientzia estrategia bateratu baten aurrean, honetarako proposamenak, ...

³ Eskuartean duzun ekarpen-eskema bete aurretik, aurreko orrian bidaltzen diren oharrak irakurtzea komeni da.